

Euskararen Foru Legearen aplikazioaren eta garapenaren balorazioa

(Basic linguistic principles and the linguistic planning of the Basque Public Administrations)

BIBLID [1137-1951] (2003), 73-76]

Euskarari buruzko 18/1986 Foru Legea, abenduaren 15ekoa, indarrean sartu zenetik, hamabost urte igaro dira. Lege honek hiru arlo garatu behar zituen: irakaskuntza, administrazioa eta komunikabideak.

Urteotan arauaren garapenak eta aplikazioak gorabehera handiak izan ditu aipaturiko eremuetan. Administrazioaren arloari zegokion garapen eskuzabalena hiruko gobernuak egin zuen (1995-1996). Garai hartan onartu zen Foru Erkidegoko Administrazio Hitzkuntza Normalkuntzarako Hobekuntza Plana (1995eko abendua). Gerora, 1996an Unión del Pueblo Navarro-k agintea eskuratu zuenetik, eta Nafarroako Alderdi Sozialistaren laguntzaz, euskararen aurkako erasoak biderkatu egin dira: 372/2000 eta 29/2003 Foru Dekretuek, Nafarroako Administrazio Publikoetan Euskararen erabilera arautzen dutenek, larriki murrizten dituzte hiztunek Administrazioarekiko dauzkaten hizkuntza eskubideak. Gizarte-komunikabideen kasuan, euskarazko hedabideei diru-laguntza publiko oro ukatu zaie; hezkuntzaren eremuan, euskarazko ereduaren aurkako kanpaina mediatikoa egin da, Unibertsitate mailako hezkuntzan lerro elebidunen garapena eragotzi da, etab.

Esandakoaren ondorioz, Nafarroan euskarak bizi duen egoera oso larria da: euskara eraso gogor eta sistematikoa jasaten ari da erakundeen aldetik.

Euskararen kontrako erasoaren arrazoiak konplexuak dira. Batetik, eta oinarrian, UPN alderdiak sortu zenetik euskararen eta euskaltzaletasunaren aurka izan duen jarrera dago, zeina indartu egin den PSN-PSOE alderdiak 2000. urtetik hona hartutako hizkuntzaren aurkako jarrera irekiaren laguntza jaso duenean (ikus, adibidez, PSOE-PSNren 2000.eko maiatzaren 20ko Ebazpena, Nafarroako Gobernuaren Hizkuntza Politikari buruzkoa). Euskararen aurkako azken urteetako eraso eragin du, orobat, Estatuko alderdi konstituzionalistek Euskal Autonomia Erkidegoaren aurka, eta, hedapenez, euskal nazionalismoaren aurka antolaturiko kanpaina politikoa, zeinaren estrategia nagusia nazionalismoa eta hein batean euskaltzaletasuna kriminalizatzea izan den, ETArekin bat datorrela esanez. Hirugarrenik, euskarak Nafarroako gizartean gora egin izana dugu. Azken urteotan euskarazko irakaskuntzan izandako matrikulazioak (eremu mistoan D ereduaren gorakadak eta eremu ez-euskaldunetan A ereduak izan duen arrakastak) asalatu egin ditu agintariak.

Euskararen aurkako eraso politikoa zenbait nafar intelektualek egindako diskurtso akademikoan oinarritu da. Diskurtso hori funtsean eta xedeetan aspaldikoa bada ere, argudio berriz jantzi da. Europako Hizkuntzen Nazioarteko III. Sinposioa zela eta, 1997an, Aurelio Artetak, bere hitzaldian, Nafarroan hizkuntza politika aldatu



beharra zegoela adierazi zuen. Euskararen aldeko itxurazko adostasun faltsua hautsi egin behar zela behingoz, eta agintariek hizkuntzari buruz zuten eskizofreniari amaiera eman behar zitzaioela, gutxiengo konplexuak uxatuz. Hitzaldi horrek finkatu zuen euskararen normalkuntzaren kontrako diskurtsoaren ardatza, eta ordutik aurrera Nafarroako hizkuntza politikak norabide berri jakin bat hartu zuen. Beste zenbait autorek, hari beretik, Nafarroako hizkuntza politikaren berrikuspenari buruzko proposamenak egin zituzten, Gobernuak, azkenik, diskurtso hori barnerratu zuen arte, araudia aldatuz eta agindu berriak aldarrikatuz.

Esandakoaren ondorioz, euskaltzaletasunaren aurkako kanpaina bortitza egin du Gobernuaren ardura duen UPN alderdiak, balibide askorekin eta oso ongi pentsaturiko kanpaina mediatiko eta politikoa antolatuz. Eraso mediatikoaren ondorioz euskarak gizartean duen onarpenak behera egin duelakoaren susmo orokorra dago.

Hizkuntzaren aurkako erasoari nola erantzun

Eraso hauen erantzunaren oinarriak finkatzen laguntzeko, honako ideiak plazaratu nahiko genituzke mahai-inguru hauetan parte hartu dugunok.

Euskararen kontrako erasoak, estrategia politiko zabalago baten barruan kokatu behar denez, erantzun politikoa eskatzen du. Edonola ere, erantzun politikoz gain, eta horren oinarrian, euskaltzaletasunak diskurtso berri bat behar duela iruditzen zaigu. Euskaltzaleak gutxi gara Nafarroan eta ez dugu indarririk. Gure helburuak Nafarroako gizartearen iritzia aldatzea izan behar du. Euskaltzale ez direnak konbentzitzeko diskurtso on bat behar dugu. Diskurtso horretan, nafar gizarteari egokitzen zaizkion proposamen egokiak egin behar ditugu.

1. Hasteko, euskararen aldeko ahalegina zamatzan duen lastre handiak gaineratu kendu behar ditugu. Azpimarratu behar da euskaltzaletasuna eta indarkeria ez direla gauza bera. Euskaltzaletasunaren mundua **plurala** da, denetariko jende eta ideologiak biltzen du. Hala ere, kontuan izan behar dugu azken urteotan euskarara hurbiltzen den jendea ideologikoki gero eta lerratuagoa dagoela, eskuinak oso jarrera bortitza hartu duelako, eta beraiengan sinesten dutenak ez direla euskarara hurbiltzen. Hori oso arriskutsua da euskararentzat, horrela murriztu egingo zaigulako espektro politikoa. Horren aurrean, argi eta garbi aldarrikatu beharko genuke hizkuntza denona dela, ez dela ideologia

baten tresna, baizik eta guztion bizi-bitartekoa eta ondare kulturala.

2. Nafarroan **bi hizkuntza komunitate** bizi gara: euskal hiztunak eta gaztelania hiztunak. Biek elkarbizi behar dugu, eta horretarako bizikidetzaren oinarriak aurkitu beharrean gaude. Garbi adierazi behar da euskaltzaleok ez dugula jotzen erdararen kontra. Ez dugu Nafarroa elebakar bihurtu nahi. Ez da hori gure helburua. Kontrako jarrera salatu beharra dago: ignoratu egin nahi gaituzte, izango ez bagina bezala tratatu. Nafarroako beste gutxiengo bat izango gara laster, etorkinekin batera. Hasteko, euskal hiztunak bagarela aldarrikatu behar dugu; alegia, ez garela fikzio bat, Nafarroako zenbait agintari eta politikaririk sinestarazi nahi izan duenez.

3. **Hizkuntza eskubideak** legeetan jasota daude. Hizkuntzen Europako Gutuna, eta baita Euskararen Foru Legea ere, hizkuntza eskubideen alde erabil ditzakegu. Gure alde dago Espainiako Auzitegi Konstituzionalaren jurisprudentzia ere. Nafarroako Justizia Auzitegiek deuseztatu egin dituzte hizkuntzaren aurkako arau eta ebazpen administratiboak. Hizkuntzaren alde egiteko bide judiziala, gizarte mailan zabalagoa behar duen estrategia baten mesederako behar dugu erabili, eta gizarteari adierazi eraso honen aurrean gaur egun daukagun sostengurik garrantzitsuena indarrean dagoen Euskararen Foru Legea dela. Egoera txarretatik alde onak ateratzen ere jakin behar dugu, batez ere gizatalde minoritarioak garenok. Lege horiek eta jurisprudentzia hori ezagutzera eman beharko genituzke gizartean, gure alde baitaude.

4. Aurreko ildoek euskararen aldeko diskurtso berriaren oinarri izan behar duten neurrian, uste dugu badirela orain arte erabili izan ditugun beste zenbait argudio bazter batean utzi beharrekoak, edo kontu handiz erabili beharrekoak, bederen. Horietan lehenengoa, euskara *lingua navarrorum* delako argudioa da. Ikusi dugunez, zenbaitek salatu dute euskara historian zehar artzain eta nekazarien hizkuntza izan dela, eta ez nafar guztiena, eta are gutxiago eliteena.

5. **Ofizialtasunaren auziari** bigarren mailakoa irizten diogu une honetan. Euskara Nafarroa osoan ofizial izan dadin eskatu baino, errentagarriagoa litzaiguke eremu ez-euskalduna eremu mistora erakartzeko beharrezko lege erreformak nola taxutu asmatuko bagenu.

6. **Administrazioetako hizkuntza lanpostuei** dagokienez, Nafarroako Administrazioan badago joera bat, Euskal Autonomia Erkidegoan egiten dena modu txarrean kopiatzeko. Hauek lanpostuetako hizkuntza eskakizunak sortu zituztenean, hona

ere heldu ziren. Hizkuntza eskakizunak berez ez dira injustuak, onarpen zailekoak bai ordea. Lanagatik diskriminatzearen argudioak (askotan oinarri gabekoa izanda ere) kalte handia eragin dio hizkuntzari. Hori dela eta, EAEko Administrazioaren euskalduntze eredia itsu-itsuan jarraitu ordez, proposatzen dugu eskakizuna non jarri kontu handiz hausnar dadila. Hizkuntzari bide emango dioten prozesuak aurrera eraman ditzaketan lanpostuak dira gakoa: udal idazkariak, irakasleak, kazetariak, etab. Gainontzeko lanpostuetan hizkuntza eskakizuna jartzeagatik liskarra sortzea ez du merezi; are gehiago, kontrako efektuak sor ditzake horrek.

7. Euskarak lehen eta bigarren mailako **hezkuntzan** izan duen harrera oso positiboa izan da orain arte. Gizartearen laguntzaz egin dute aurrera D ereduak eremu mistoan eta A ereduak eremu ez-euskaldunean. Azkenaldi honetan, ordea, Gobernuak kanpaina bortitza egin du euskal lerroen aurka, euskararen marjinazio politikaren ildo beretik joan dena. Euskal lerroak sendotzeko kanpainari ekin behar zaio, ikasleak “ghettizatze” arriskua ekidinez. Bestalde, euskarari erronka berriak datozkio, hirugarren hizkuntzaren irakaskuntza goiztiarra eta beste herri batzuetako ikasleak euskarara erakartzeko bideak asmatu behar baitira. Multikulturalismoaren erronkari aurre egiteko eredu bat, Elizondoko ikastolan bultzatzen ari diren programa izan daiteke. **Unibertsitateari** dagokionez, Unibertsitateko Estatutu berriak garatzerakoan ahalegina egin behar da euskarak bere lekua gal ez dezan eta irakasle euskaldunak kontratatze bideak ireki daitezen.

8. Azkenik, euskarak **gizarte komunikabideak** behar ditu. Euskal hedabideak inoiz baino beharrezkoagoak dira Nafarroan. Eta inoiz baino prekariedade egoera handiagoan daude. Finantza bide alternatiboak aztertzeaz gain (publizitatea nagusiki eta orobat ekarpen pribatuak), garrantzi handikoa da euskararen irudiaren isla diren hedabideen kalitate tekniko eta profesionala hobetzea, langileen egonkortasuna sustatzea, eta euskara maila asko zaintzea. Komunikabideek euskara ona erabiltzea oinarri-oinarrikoa da hizkuntza eredu eta maila desberdinak finkatzeko eta hitzunen erabilera sustatzeko.